

ZUZI OLINPIKOA EUSKAL HERRIAN: EHBaiREN IRAKURKETA

Joko Olinpiko eta Paralinpikoen inguruan oihartzun mediatikoa handitzen ari da zuzia Marseillera iritsi denetik. EHBaik, Zuzia Euskal Herritik pasatzen den egun honetan, aurtengo edizioaren inguruko irakurketa kritikoa egiten du. Izan ere, gaur, Zuzia ipar Euskal Herriko sei herritatik pasa da.

Duda handiak ditugu, gure lurraldeari gainbaliorik ekarriko ez dion ekimen honen inguruan egiten den komunikazioarekiko. Hitzordu honek, 180.000€-ko kostua izan du Pirinio Atlantikoetako Departamenduarentzat, azken honek Euskal Erakunde Publikoaren aurrekontua emendatzen ez duenean.

Euskal selekzioaren ofizializazioa

Askotan esan dugun bezala, Euskal Herriko kirolariek nazioarteko lehiaketa guztietan parte hartzeko eskubidea izan beharko lukete, beren koloreekin, Eskozia, Gales edo Ipar Irlandarekin gertatzen den bezala. Muga administratibo batek zatitzen bagaitu ere, Nazio bat gara eta gure herria nazioarte mailako kirol ekitaldietan ordezkatua izateko nahia dago.

Nazioarteko Olinpiar Elkarteak (CIO frantsesez) Euskal Herriaren existentzia ukatzeaz haratago, Paris 2024 edizioak zapore txarra utziko digu. 2017an jada, Joko Olinpikoak Parisen iragan zirenean, edizio hori inklusiboa, herritarra eta gas karboniko baxukoa izanen zela iragarri zuten. Geroztik ohartu gara, errealitateak talka egin zuela hitz horiekin.

Klase mespretxua

Parisek, 2024ko Joko Olinpikoetarako hautagaitza pausatu zuenean, ez zituen herritarrak kontsultatu. Azalean gelditu da Frantses gobernuaren metodo zentralista eta autokratikoa.

Azken hilabeteetan, Frantziako hiriburuan jendea kanporatzen ari dira: ikasle-etxebizitzak errekesizionatzen dituzte, prekarioenak hiriburutik kanpo eramaten dituzte, etxebizitza eta garraioen prezioak emendatzen dituzte, lehiaketa ikustera joateko sarrerak garesti dira... Antolatzaileek beren parioa lortuko dute, bisitariak karta posta-

letan irudikatzen den Paris batean lasaiki ibiltzen ahalko dira, hutsa eta maila ertaineko klaserik gabe.

Neurtu gabeko aurrekontua

Joko Olinpiko horien kostua zein den ez dakigun arren, 6 miliar euroko langa gaudituko duela dakigu. Agian miliar batzuk gehiago izanen da. Gaur egun oraindik, ez dakigu nundik eta nola egiten duten diru zama hori lortzeko. Gastu handi horrek eragina du Euskal Herrian ere, diru hori pertsonen eta gure lurraldearen oinarritzko beharretan inbertitua izan zitekeelako.

Horrez gain, jakin da paperik gabeko ehun bat langile aritu zirela olinpiar guneak eraikitzeke lanetan, azpikontrataturako enpresen bidez. Gehienak, Sahara hegoaldeko langile esplotatuak. Lan kontraturik gabeko lan nekagarrienak eta eraikuntza sektoreko segurtasun arauak erabat gutxiestera bideratuak. Zerrenda luze hau ezin da bukatu ekitaldia antolatzen laguntzen dituzten 45.000 laguntzaileak aipatu gabe.

Egiteko modu horien aitzinean kokatu behar dira enpresa pribatuek Joko Olinpikoei esker irabazten duten diru zama handia. Austeritatea eta xenofobiaren banalizazioa iraunkortzen ari den une honetan, ezinezkoa zaigu horrelako egiteko manerak onartzea.

Segurtasun-aurrekari arriskutsua

Amnistia Internazionalak, jada salatu du Macronen gobernuak jarritako segurtasun neurria. Frantziar estatua, Europar Batasuneko lehen herria da 2024ko Joko Olinpikoen legearen baitan, bideo zaintza onartu duena esperientzia gisa. Honek, zuzenki urratzen du norbanakoaren askatasun publikoa.

Paisera sartzeko eman dituzten neurriek eta Joko Olinpikoen aurka direnen kolektiboei aurre egiteko jarritako disposizioak, 2017an Biarritzen egondako G7a orotarazten digute. Azken gertakari hori iragan zenetik, lehen aldia da horrelako dispositibo bat aplikatzen duela Frantses estatua.

Sarraski ekologikoa

Joko Olinpikoetako proba guztiak egiteko egiturak jada existitzen baziren ere 2024rako hautagaitza pausatu zutenerako, artifizializatu dituzten hektare kopuruak izutzen gaitu. Are gehiago, klima larrialdi egoeran gauden honetan, horrelako gertakariak kutsadura maila handi bat eragiten dutelako. 15 milioi pertsona egonen direla aurreikusten da.

Erabilera bakarreko plastikoaren debekua, beraz, argudio handia da ingurumena

suntsitzen duten multinazionalak finantzaturako Joko Olinpiko horiek ez egiteko.

Joko Olinpikoen baloreak

Joko Olinpiko modernoan lehen anbizioa, munduan bakea, adiskidetasuna, elkartasuna eta ekitatea sustatzea zen, kirolaren balio hezitzaileen bidez. Nazioarteko kirol ekitaldirik handiena da, begirada guztiak kirolariei zuzenduak zaizkio. Joko Olinpikoak, bakea eta nazioen arteko elkartasunaren erakuslehoio izan dira.

Beraz, ulertezina da, gure ustez, kirolari errusiarrek eta bielorrusiarrek behartuta egotea bandera neutralarekin lehiatzera, Israelgo kirolariek beren aberriaren koloreetako proba guztietan parte hartu ahal dutenean. Tamalgarria da Nazioarteko Olinpiar Elkarteak (CIO frantsesez) kontuan ez hartzea Nazioarteko Justizia Gorteak martxotik aurrera Palestinako genozidio-arriskuen berri ematen dituzten txostenak. Koherentzia- eta ekitate-betebeharraren ondorioz, Israelek eten egin beharko luke edizio honetan. Beraz, bat gatoz Nafarroako Parlamentuak eta ezkerreko parlamentarien taldeak egindako eskaerarekin, alegia, Israelgo kirolariek bandera neutralarekin bakarrik lehiatzeko aukerarekin.

Gure aburuz, aurtengo Joko Olinpiko eta Paralinpikoak, Frantziar estatuak zein Frantses departamenduek komunikazioari esker bultzaturiko desordena dira. Horregatik diogu aurtengo edizioa, herritarrekin eta herritarrentzat pentsatua izan behar zela. Joko xume eta ekologikoagoak non Euskal Herria bezalako naziorik gabeko herriak lehiatzen ahal diren. Herrien arteko benetako bake- eta lankidetzadynamika erraztuko luketen jokoak.



Bai